

Zein izango dira Syrizaren lehenbiziko neurri ekonomikoak?

Syrizaren lehen gobernuan ekonomia ministro izango den Yánis Varoufakisen hitzetan, Europak ez dio Greziari iturria itxiko “dauzkagun proposamen arrazionalak azaltzen badizkiegu”.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

YANIS VAROUFAKIS (1961) izan daiteke Syrizaren lehen gobernuan Alexis Tsiprasek ekonomia ministro izendatuko duena. *The Global Minotaur* liburuaren idazle, George Papandreou lehen ministroaren (PASOK) aholkulari aritu zen, haren kritiko zorrotz bilakatu aurretik.

1929ko krisitzarretik berbizteko AEBek ezarri zuten estrategia keynestarra aldarrikatzen du Europarako. Andy Robinson kazetari nekaezinak azken elkarrizketan eskatu dio laburbiltzea Syrizar ondoko hilabeteetan ezarri nahiko duen politika, “Yanis Varoufakis: *‘Vamos a desmantelar la cleptocracia griega’*” artikuluan jaso duena *La Vanguardiarako*. Hona pasarte laburbatzuk:

Europako Banku Zentralak (EBZ) Greziari likideziaren iturria itxeko arriskurik ikusten duzu, Troikaren murrizketak ez onartzekotan?

Beti daude arriskuak, baina ez dut uste EBZk likidezia kenduko digunik zuzenean joan eta Frankfurt, Paris, Berlin eta Bruselako gure bazkide europarrei azaltzen baldin badizkiegu dauzkagun proposamen arrazionalak. Aste batzuetako tregua eskatuko dugu, politika berri horiek haiei azaldu ahal izateko.

Zein izango dira proposamenok?

Lau fase dauzkate. Lehenbizi, oso landutako plana daukagu zorrarekin egin beharrekoaz, orain ez naiz xehetasunetan sartuko. Gero, egongo da programa bart erreforma



Alexis Tsipras Syrizaren garaipena ospatzen Atenasen.

sakonez osatua, guk, eta azpimarratzen dizut guk hori, ezarri nahi ditugun erreformez eta ez Nazioarteko Diru Funtsak edo ELGak edo dena delakoak inposatutakoez. Alegia, erreforma horiek garbi utziko dute ez gaudela prest berriro 2010ean geunden egoerara itzultzeko.

Nolakoa izanen da erreforma?

Elitearen zergekiko immunitatea borrokatuko dugu. Kontua ez da soilik zergetatik ihes egiten dutela, kontua da haien errentaren zati handi batek zergarik eduki ere ez daukala. Kleptokrazia bat dago Grezian, bekatzeko triangelu bat hauez osatua: estatuaren hornitzaileak, bankeroak eta hedabideak. Triangelu hori eraisteko erreformak proposatuko ditugu. Eta beste aldetik, emergentziazko neurriak proposatuko ditugu Greziak bizi duen krisi humanitarioari erantzuteko. Europar guztiei interesatuko zaie neurri horiek aztertzea, bai behintzat Egunsenti Urrekararen

sutea zabaltzen utzi nahi ez dutenek.

Europako liderrek uko egin diote zorrozki Troikaren programa ezertan aldatzea, ez da hala?

Guk proposatu behar dugun memorandum alternatiboa zuhurra da eta arrazionala. Horregatik ezin dut sinetsi Europako Banku Zentralak esango digunik “Aski da, jaun-andreok, zanpatu egingo zaituztegu”. Zor publikoa jaulkiko dugu Greziako estatuaren hurrengo sei hilabeteotako jarduera bermatzeko. Banku greziarrek erosiko dute eta EBZk eskaintzen duen likideziarentzako bermetzat erabalko da. EBZk eman dezakeen likideziarentzako muga finkorik ez da. Irlandaren kasuan 70.000 milioitaraino igo zuten. Euroa zatitzea saihestu nahi baldin badute, behar den mailaraino handituko dute likidezia.

Soluziorik egon liteke Grezia soilik harturik?

Ez. Eurogunean inbertsio bidez ekonomiaren biziberritzea sustatzeko neurriak proposatuko ditugu. Ez bakarrik Greziarentzako, baita ere Espainiarentzako, Irlandarentzako. Syrizar defenditzen du Stuart Holland eta biok prestatu dugun proposamen apala, zeinetan proposatzen dugun Europarako *New Deal* bat oinarritua inbertsio publikoan, enpleguen sortzean eta zorraren berrantolaketan. ■

